Bizkaieraren eredu idatzirako norabideak
I. Atze-hitz eta atzizki batzuk

Adolfo Arejita

Ondorengo txosten hau, *Mendebalde* kultura alkartearen eskariz atondu eta taiutua izan da, lehenengo zirriborro modura 1997ko abenduaren 10erako, eta geroago ugaritu eta borobildua, alkarteko kideen eretxiak entzun ondoren.

Txostenaren egilea: Adolfo Arejita
Ohargileak: Eneko Barrutia, Joserra Bilbao, Juan Luis Goikoetxea, Jazinto Iturbe, Iñaki Sarriugarte *Mendebalde*-ko kideak eta Maribi Egia, *Labayru* Ikastegikoa.

0. AZTERBIDEA

Ondoren garanduko dogun hitz enklitiko, atze-hitz eta atzizkien zerrendea ez dago osoa izateko asmoaz eginda. Zerrenda hautatua da, mendebaldeko euskeran gitxi-asko erabiliak diranena, baina halanda be ez guztiena. Hautua egiteko izan diran erizpideak askotarikoak

dira: batzuen kasuan, euren itxura idatzia eta hak dautsan izen-sintagmagazko idazkera finkatu beharra; beste batzuen kasuan, sintaxi alderdiko korapiloak, aukera desbardinak eta lotukerak erakutsi beharra edo gurea; beste batzutan, esangurea edota esangura-adierak zehaztu gurea; eta atzen, batzuen kasuan, atze-hitz batzuen bakantasun edo bitxitasuna.

Zerrenda honetako hitz-itxura guztiak gauza batean datoz bat: atzekari izatean. Atzekariotarik ia guztiak atze-hitzak dira, erdal mailebuz posposizioak, eta bakan batzuk, atzizki edo berrekailuak. Bigarren sailekook aparteko ikerketa eskatzen dabe, eta honeetarikoak ez ditugu bidebatez antzean edo saihetsetik baino ikutu. Ardura nagusia, atze-hitzon ingurukoa izan da: euron itxura, erabilera eta balioak modu erraz eta erosoan aurkeztea, argibiderik gura leukeanari.

Atze-hitz bakotxaren inguruan honako egitura oinarrizkoa egitamutu dogu: a) Idazkera eta itxura; b) Erabilera (sintaktikoa); c) Balioa edo esangurea. Hiru alderdiok ez ditugu guztietan aztertu, beharrezko edo egoki ikusi dogunean bakarrik baino.

1. HITZ ENKLITIKO, POSPOSIZIO ETA ATZIZKI BATZUK. EREDUAK ETA IDATZIRAKO PROPOSAMENAK.

• ADI

Idazkera: bereiz idatzirik.

Erabilera:

– Izen edo izen multzoa datiboan dala:

Zeri adi egon zara ba, aurrekoa ez ikusteko?
Danari adi egoten da gure txikitxoa, txoria baino bizkorrago.

– Izen edo izen multzoa adlatiboan dala:

Gu ikusi gaituanean bestera adi jarri da, baina lehen hona adi egon da luzaroan.

Nora adi zagoz, geldi-geldi paratuta lelo baten antzean?

– Izen edo izen multzoa gen. edutezkoaz doala:

Gure adi egon barik, mogitu zaitez; gu gerotxoago joango gara eta.

Esanahia:

a) Begira, begiak norbait/zerbaitetan tinko dirala egotea adierazoten dau datiboaz zein adlatiboaz.

b) Itxaroten edo zain egotea adierazoten dau genitiboaz.

• **ADINA / GAINA**

Idazkera: aurreko hitzetik banandurik idatzi ohi da. Ahozkoan barriz, esapide batzutan konposatu legez erabilten da, eta horregaitik loturik idaztea be onartu leiteke: *guraina* (*gura adina*).

Forma eta aldaera nagusiak: Batetik *adina* eta *aina* ditugu. Bien artean, eredu idatzirako *adina* hobetsiko da. Bestetik *gaina* forma be erabilgarritzat joten da idatzirako.

Erabilera: Deklinabideko edozein kasugaz (*zuk, zuretzat, egiteko*) edota aditz jokatuaz (*daukan*) ager daiteke. Hizkera batzutan gen. edutezkoaz erabilteko joerea da nagusi (*gure gaina, haren gaina*).

Esanahia: bardintasunezko konparazio adierazoten dau, *beste, hainbat, bezainbat* formen antzera.

Adibideak:

Horrek ez daki astoak eunetan adina (*aina*)

Horren gaina diru euki eta oraindino gehiago gura dozu?
Horren gaineko seme-alabak daukazuz, hain gaztea izanda.

Autoreetan forma-barietata handiagoa idoro daikegu:

«Esan dodan alagiña [beste, gaña, goara] bildur izatekoak dira seigarreneko berba deungaak» (Zabala *Irun* 137), «itxasoak dituzan ur tantoak lainbeste [gaña] millinoe urte joan da bere» (Zabala *Aran* 254)

• **AGINEAN, AGINIK**

Idazkera: bereiz idatzirik.

Erabilera: aditz partizipioari darraiola. Aditz-mota jakin bategaz erabilirik agiri da testuetan: *hil, galdu, ito, ondatu, goitu, urratu*, e.a.

Esanahia: jazoeraren bat bapatean gertatzeko puntu-puntuan edo trantze larrian dagoala adierazoten dau. Adiera bardintsua dabe: *zorian, beharrean, hurren* eta antzeko batzuk.

Adibideak:

Behin ondatu aginean egon zan Josetxo, galarrena txar batek arrapatuta.
Gure etxe zaharra jausi aginean dago.
Ernegau edo haserretu aginean dagoanagandik urrun egotea da onena.

Testuetarik:

«ez egon konkorturik, illaginik, ta ezaguera baga» (Mogel *DC* 399)
«larri erabillezan arerijuak, ta goitu aginik» (Mogel *PA* 143)

«ito aginik badabiltza» (Mogel *CB* 143)

«Azkenengo arnasakaz joan aginean dagoan baten antzera» (Añibarro *EscL 21*, 34)

• **ALA**

Erabilera eta balioa: Itaun edo galde perpausa baten atzenean kokaturik erabilten da.

Itaun perpausari *ala* erantsi ezkero, itaungileak bere harridura erakusten dau jazoera baten aurrean, berak aurrez uste ebanaren aurkakoa dalako.

Adibidez:

Aurten ez zoaz oporretan ala? Beti joaten zara ba eta!
Zer egiten dozu hor geldi? Ez zatoz gugaz ala?

• **ALDE**

Erabilera: Aurreko izen edo izen multzoak *-en* gen. edutezko atzizkia dauala.

Ikusleek etxeko taldearen alde egiteak ez gaitu harritu behar.
Noren alde urten dau diruak, zurien ala gorrien alde?

Zentzua: *kontra, aurka* hitzaren antonimoa da.

• **ALDEAN**

Idazkera: Bereiz idatzirik.

Zentzu nagusi bi ditu:

a) Konparazio eremuan: -en ondoan, -en konparazioan.

Aurreko hitzari, izen, izenordain edo adjetiboa bada, *-(r)en* atzizkia lotzen jako, eta aditzondoa edo toki-denborako adizlaguna bada, *-ko* genitiboa.

Adibideak:

Gure aldean asko daki horrek.
Nire aldean indar handia dauka Peruk.
Lehengo aldean ondo bizi gara gaur.
Beste urteetako aldean sagar asko dago aurten.
Hango aldean (*Andaluziako aldean*) *hemen euri asko egiten dau.*

b) Orduekin, gitxi gora beherako ordua: inguruan, aldera.

Erabilera: *Nor* kasuari dautsala. Baina lexikalizaturik be bai: *goi - zaldean, arratsaldean.*

Adibideak:

Goizaldeko bostak aldean abiau dot auzoko mutila etxera sartzen.
Hamaikak aldean atseden txiki bat egiten dogu kafea hartzeko.

• **ALDETIK**

Erabilera eta zentzua: adiera bi bereiziko ditugu:

a) Izenordain edutezko eta erakusle genitiboen ondorik: -ren kontura 'por (nuestra) cuenta'.

Danok batera baino hobe izango da bakotxak bere aldetik segitu dagian.
Guk geure aldetik eta zuek zeuen aldetik ekingo deutsagu lehe - nengo, eta gero bateratuko ditugu ondorioak.

b) Aditz jokatuari dautsala, 'en cuanto (a) / (que)' adieraz:

Zaharra dan aldetik, lotsa gehiago izan behar deutsazu zeure adi - nekoari baino.
Euskal Herrian bizi garean aldetik, ezinbestekoa dogu euskera jakitea.

Bertokoak zarien aldetik, nik baino hobeto ezagutuko dozuez hemengo bazterrak.

• **ANTZERA, ANTZEAN (antzeko)**

Itxura: Adlatiboko *antzera* eta inesiboko *antzean* dira erabilienak, eta adnominala danean *antzeko.*

Erabilera eta balioa. Modu edo zelakotasunaren zentzu-eremu barruan dago *antzera, antzean* atzekaria. Haren alderdi berezi bat adierazoten dau, antzekotasun edo kidetasunaren adiera hatan be.

Sintaxi-erabilera nagusiak bi dira:

– Genitibo edutezkoaren ondoren, izen, izenordain eta antzekoekin:

Guk be, beste batzuen antzean, behar egin behar, bizimodua ateratekо.

Antxinekoen antzera bizi dira oraindino etxe hatan.

Jake horren antzeko asko ikusten dira kalean oraingo udabarrian.

– Aditz jokatuaz, *-n* atzizkiaren ondoren:

Gure osabeak daukan antzean, guk be etxeari kuku-leiho bat atera deutsagu teilatuan.

Arratian egiten dan antzera egiten dabe euskera Txorierrian be.

– Aditz partizipioaz, *-tako, -(r)iko* atzizkien ondoren:

Geuk egindako antzean (edo *antz antzean*) *egin dabe beste guztiek be.*

Testuetarik:

> «Ezkutuan euki gura zituan berak idorotako lanperna gozoen sorlekuak, umeak txori abiea iñori esan barik ezkutuan euki oi daroen antzera» (Agirre *Kresala* 133)

• **(-)ARREN**

Idazkera: bereiz idatzi behar da aditz partizipioagaz eta aditz jokatuaz doanean, eta loturik, aditzizenaz, edota izen-adjektiboekin doanean.

Erabilera:

a) Aditzagaz, hiru modutara erabili daiteke:

– Partizipioagaz:

Aurrez aurre ikusi arren, jaramonik be ez deust egin.
Asko emon ez arren, borondatea erakutsi ezkero, nahikoa da.
Mila ahalegin egin arren be, beti ez da lortzen noberak gura dauana.

Ezezka emonda dagoanean, aditza ezabatu be egiten da inoiz:

Zuk ez arren, beste edonok gura izan leike.

– Aditzizenaz:

Beste zeregin barik etorri da, geugaz egotearren.
Inori emotearren, bera geratu da bape barik.

– Aditz jokatuaz, nahiz hiztunok ohitura gitxi izan gaurregun honetara erabilteko:

Zeozer dakigun arren, gai horretan gehiago sakondu beharra dago.

Guk ardura handirik hartzen ez deutsagun arren, beste batzu - rentzat sekulako garrantzia dauka.

b) Bestelako hitzekin be, izen edo adjetiboekin, bardin. Adib.: *alperrarren, bildurrarren, damuarren, (euren) ederrarren, gitxiarren, nagiarren, itxurarren, Jainkoarren, Jainkoaren amorearren, konprome - zuarren, larriarren, lotsarren, zeure amorearren, pozarren,* e.a.

Inuzentearren jazoten jatzuz zuri holakoak; ez zuhur ibiliko bazina.

Motzarren ez dabe mutilek beragaz ibili gura (= itsusia, motza izateagaitik)

Lotsarren geratu da bazter baten, beste guztiakaz tabladura igon beharrean.

Autoreetarik:

«Ametan bere dot neure Proximua neure buruba legez, ta zure amo-riarren» (Mogel *Dotr* 87), «Gitxiarren ni illa / Iza-ez naz koipetan »(Mogel *PA* 51).

«Kanpoti sartuten dirianak, ezin egon dira atsa arren» (Bartolo *Olg.* 182), POZ: «sarauko dantza desonestura euren guraz, poz arren arma-tuta, agineetati ura darijuela, duazan gizonak» (Bartolo *Olg* 129).

«eta lotsaarren ezteutsazu iños konfesoreari aitatu» (Zabala *Irun* 67), «Jaungoikoarren, neure entzula onak, Jangoikoarren, bildur ikaragarri bat guzurragazko juramentuari» (Zabala *Irun* 78), «baia ez arako aserre-arren zer egiten dabeen bere eztakienean» (Zabala *Irun* 125).

• ARTEAN (arteko, artera, artetik) / ARTE

Idazkera: bereiz edo banan idatzi ohi da: *ikusi artean, bihar arte, laster arte.*

Itxura eta aldaerak: *artean* eta *arte*, bitzuk dira erabiliak. Lehenengoak dau, dana dala, tradizinoan itzal handiagoa.

Erabilera:

a) Izen, izenordain eta antzekoekin, *-en* gen. edutezkoari darraiola erabili daiteke: *lagunen artean, gazteen artean*. Izenordainekin, berariaz pertsonenekin, ugaria da: *neure artean, geure artean, zuen arteko, euren artera*. Zehaztubakoekin eta erakusleekin: *nortzuen artean, zeintzuen artean; honeen artean, hareen artean*. Zenbatzaileekin bardin: *askoren artean, hainbaten artean, batzuen artean, bosten artean*.

b) Izen biloiz edo mugagabeaz, bizibako eta bizidunekin bardin: *harri artean, pinu artean, orri artean, sasi artera, kale artetik, sats artean, hauts artekoa*. Edota: *jende artean, lagun artean, andra artean, ume artean, patari artean*.

c) Adlatiboari darraionean, denbora balioa izan ohi dau gehienetan. Banan idazteko ohiturea dago, baina loturik be idatzi leiteke: *orain arte / oin artean, goizera arte, arrastira arte, iluntzera arte, gaueara arte, hurrengora artean (hurrengorarte), ordura arte / -an, honartean, lehengo asterartean, datorren urtera arte*.

d) Aditzondoekin: *gaur arte, gero arte, bihar arte, laster arte, etzi(ra) arte, beti(ra) arte*.

e) Aditz partizipioaz:

Harik eta lehen egin arte behar eta behar.

Berak urteteko esan arte, barruan egon behar izan genduan ixil-ixilik.

Irabazi arte, hil arte, jausi arte.

f) Aditz jokatuaz:

Dagoan artean bon bon, ez dagoanean egon.
Geu karta jokoan gabiltzan artean, zuk jagoizu umea, mesedez.
Aurreko atea jagoten egozan artean, atzeko atetik iges egin eutsen etxe-lapurrak.
Ahal dan artean eutsi.

Zentzuak:

a) Multzotasuna edo talde zentzua hartu ohi dau izen, izenordain eta horretarikoekin. Multzo hori zehaztugabea izan ohi da (*sasi arte*) ingurune askotan.

b) Denbora zentzua hartzen dau aditzen ondorik doanean eta denbora-aditzondoekin. Batzutan denbora-igarotearen atze-munea adierazoteko (*belura arte, gero arte, joan arte, natorren arte*), beste batzutan denborearen iraupena edo igarotea bera (*gabiltzan artean*).

• **ATXINA**

Idazkera: bereiz idatzirik.

Itxura eta aldaerak: *atxina* forma hobetsiko da beste aldaeren artean: *itxina* (*atxine, itxine*).

Erabilera: Ablatibo kasuko izen, IS edo aditzondoren bati darraikola.

Esanahia: *-tik aurrera* egituraren berbera. Dana dala, *handik atxina, hortik atxina, mundutik atxina* esamoldeek zentzu orokorragoa dabe: hortik zehar, han gaindi, munduan barrena.

Adibidez:

Hemendik atxina, hortik atxina, basotik atxina, menditik atxina.
Zoaz handik atxina!

Gure mutila goizean urtenda gehiago ez da agertu. Autoa hartu - ta hortik atxina joan da.

Testuetarik:

«Kaleti atxina bazoaz, begiak batuta joan» (Añibarro *EskLib* 21, 68)

«Eguneti atxina [aurrera] nosik bein [aldian bein] edo erloiuak jot--orduan edo alangoetan abemariatxu bat» (J.M. Zabala *Irun* 58).

«mundu zabaleti atxina egiten direan lapurreta, kalte modu, ta tranpa gaisto guztiak» (J.M. Zabala *Irun* 145).

• **ATZEAN**

Idazkera: bereiz idatzirik.

Erabilera: Gaurregun gen. edutezkoa lagun dala lotzen jako izen edo izen multzoari. Baina izen soil mugagabearen ondorik be erabili daiteke, eta testuetan sarritxo irakurri daiteke.

Kontuz horregaz: zure atzean barik zure diruaren atzean igoal ibiliko da eta.

Esapide finkatutzat jo daiteke: *bata bestearen atzean:*

Gure taldeak partidu guztiak irabazi ditu bata bestearen atzean.
Bata bestearen atzean dabilz txakur-katu eginik.
Egitarauko puntu guztiak aztertu zituan bata bestearen atzean.

Esanahia:

– *atzean* atzekariak, edo izen mugagabeaz edo gen. edutezkodunaz, norbait edo zerbaiten bila ibiltea adierazoten dau besteak beste:

Hainbeste biderrez dei eta dei ekiteko, jakin gura neuke ea zeren atzean dabilen.

Azkenean be berari emon deutsie lehenengo saria. Luzaro ibili da horren atzean.

Testuetarik:

«mutillok bere ezditu inok ikusiko neskatilla atzian» (Mogel *PA* 55), «Alango baten Ollo atzian ebillela jausi zan» (Mogel *Ip* 31);

«Ezkara geu etorri zeuen ondasunen atzean, eta bai zeuen arimeen billa» (Zabala *Irun* 191)

– Atzeko toki-posizioa da beharbada ugariena:

Etxe atzeko landan jokatzen dabe umeek futbolean.
Andrazkoak gizonezkoen atzean jarten ziran lehenago eleizan.

– Ondorengo denbora-gunea be bai batzutan, *ondoren, ostean, eta gero* atzekarien balio beretsuaz:

Zu izango zara lehenengo, eta zure atzean ni, eta nire atzean Peru.

Aurrean dogun arazoa konponduagaitik, egon seguru, honen atzean beste batzuk etorriko jakuzala.

Zure aurrekoak bide egokitik joan badira, zuk be hareen atzean joatea dozu onena.

• AURREAN, AURRERA (aurretik, aurreko)

Idazkera: bereiz.

Erabilera:

a) *Aurrera* adlatibokoa:

– Instrumentalaren ondorik erabilten da esapide batzutan:

Ondino ez zara kargutu jersea atzekoz aurrera ipinita daukazuna ala?

Arineketan joan da eta musturrez aurrera jausi da kaminoaren erdian.

– Ablatiboaren ondorik be bai:

Hona arte bide asfaltatua euki dogu, baina hemendik aurrera lurra baino ez dago.
Orain arte gauzak zelan izan diran badakigu, baina hemendik aurrerako barririk ezin jakin

b) *Aurrean, aurretik, aurreko* atzekariak:

– Izen mugagabearen ondorik:

Norberaren begi aurrean euki eta ikusi ez.
Etxe aurreko intxaurra.
Auto aurretik kendu zaitez arin!

– Gen. edutezkoaren ondorik:

Zaldiaren aurrean parau zan besoak zabalik zituala.
Ardien aurretik joian artzaina, bidea zuzentzen.

– Aditz partizipioaren ondorik:

Berandu zatoz. Zeu ailegatu aurretxoan igaro da zortziretako autobusa.
Inora joan aurretik, ipini idatzita egongo zaran lekuko telefonoa.

• **BAINA**

Erabilera eta balioa: Perpaus baten atzenean ipinirik erabili leiteke.

Halakoetan balio bat baino gehiago hartu leikez:

a) Kontzesibotasuna

Emon dabenagaz konforme egon beharko dogu, ez da asko baina.
Ez da berandu baina, badaezpadan hobe da goiztxoago joan.

b) Harridura zentzua.

Nik ezer ez dakit baina! Zelan gura dozu ezer esatea ba?
Haren berbetea ez dot piperrik be ulertzen baina! Ezin dot hagaz telefonoz berba egin.

• BAINO (1)

Erabilera eta balioa: *baino* konparazioko lotura-hitz legez erabilten da batez be euskera osoan. Konparagaitzat hartzen dan osagaiaren ondoren ipinten da beti. Konparagai horrek gramatika-kategoria ugari hartu leikez barruan. Halan:

Guk baino gehiago daki gai horren gainean.
Andrak baino hobeto daki josten.
Behar dan baino handiagoa.

Atal konparatuaren ondoren ipinirik be erabilten da atal konparagarria + *baino.* Halan:

Hau hobea da hori baino.
Dantzan hobeto daki artajorran baino.

• BAINO (2)

Erabilera eta balioa: Aurkaritza oso-osoa adierazoten dauan juntagailu atzekariaren balioa be badau mendebal euskeran.

Balio hori dauanean, bigarren osagai alkartuaren atzenean kokatzen da. Bigarren osagai edo atal horretan, aurkakotasuna adierazoten dauan unitateaz gainerako guztiak ezabatu egiten dira, eta aditza izateko kasuan, honen flexio alderdia be bai.

Tradizioan itzal gitxi eukiagaitik, indartsu dabil ostera gaurko hiztunetan. Halan:

Aurrean daukagun hau ez da baserri-etxea, torretxea baino.
Zu ez zara txikia, ondo galanta baino.
Ez dira txarto bizi, edertotxo baino.
Ez da kalean bizi, baserrian baino.
Ez zaitez inora joan daukazun eztulagaz, etxean bero-berotan gelditu baino.

Autoreetarik:

«Ez naz ni neskia, neskatila utsa baino» (Mogel *PA* 10)

• **BAIZEN (1)**

Erabilera eta balioa: Bardintasuneko konparazioa adierazoteko darabile Bizkai ekialdeko autore klasikoek. Hau da, beste euskalkiek eta eredu estandarrak *bezain* darabilen leku berean.

Testuetarik:

«eztago zuben artian ni baxen ederrik» (Mogel *PA* 114), «Ez nas ni zu baxen sendua» (Mogel *Ip* 46), «izan balitz gu baxen dontsu ta zorionekua» (Mogel *Serm* 86)

• **BAIZEN (2)**

Erabilera eta balioa: *baino* hitzaz adierazoten dan konparazio-eredu berbera egiteko erabilten da Bizkai mendebaldean gaurregun be, haren sintaxi berberaz: hau da, *baizen... -ago* eredua. Halan:

Ama baizen lodiagoa da alabea.
Gurea baizen zaharragoa da zuen alabea.

• BAIZEN (3)

Erabilera eta balioa: *baino, baizik, ezpada* juntagailuek markatzen daben oso-ososko aurkaritza adierazoteko erabili izan da tradizio zaharrean gehien, *ez* + *baizen* egituraren barruan.

Testuetarik:

> «baia ori ezta faltea, sobrea baxen» (Mikoleta 212, 2);
>
> «Oraintxe baxen beste era, aldi ta denporarik eztago neure naiguran» (Añibarro *EscLib* 37).
>
> «denporea emoteko baxen eztoguz guk esaten berba, ipuin ta kanta orreek» (J. M. Zabala *Irun* 138)

• BAKO / BAGA, BAGAKO

Idazkera: bereiz idazten da —*txar bako, itxura bako, jan bakoa*—, lexikalizazioetan izan ezik.

Forma eta aldaerak: Ahoz eta idatziz gaurregun nagusi *bako* forma da. Berau gomendatzen da erabilgarrientzat, tradizio klasikoko *baga* eta *bagako*-ren ordez.

Halanda be, *baga* forma bizi da oraindino hitz konposatuetan. Zabal dabilz Bizkaiko leku askotan *lotsabagea* eta halako berbak, guztiz gorde beharrekoak bestetik.

Erabilera:

– Lexikalizazioa ugaria da kasu honetan, batez be adjetiboak sortzeko. Halan eihoak dira, beste askoren artean: *ardurabako, akabubako, amaibaga, epebako, errukibako, ganorabako, itxurabako, lotsabaga / lotsabako, moldebako, petobako, seinbako, senbako, susterbako, zentzunbako* eta beste. Adibidez:

Errukibako horrek inori be ez deutsazu ardurarik hartzen eta!
Aor ba, tximino itxurabakoa!
Lotsabakoak halakoak beste guztien diruak hartu eta iges ez dau egin ba!

Baina bestetariko konposatuak be badira: *hainbako*:

– Izenekin (*adore bako gizona*), izen-adjetibo multzoekin (*kolore gorri bako soinekoa*), izenlagunez horniduriko izenekin (*gustuko ardao bako bazkaria*), zenbatzailedun izen-multzoekin (*diru asko bako baz - karia*), aditz partizipioekin (*esan bako, ordaindu bako, ikusi bako*), e.a.

Teilatu bako etxea. Praka bako gizona. Mamin bako gorputza.
Buru handi bako gizona. Eskola handi bako andrea.
Lur asko bako etxea. Harrotasun gehiegi bako laguna.
Gozo bako emakumea.
Ondu bako ardaoa.

– *Bako, bagako* formen lekuan *galduko* be erabilten da berba batzutan: *lotsagalduko, eskergalduko, zorigalduko,* e.a.

Ume lotsagaldukoagorik, horraitino, topau be ezin leike egin!

• BARIK / BAGARIK (1)

Idazkera: aurreko hitzetik bereizirik: *gogo barik, jan barik, urrun barik.*

Zentzua: *barik* (*bagarik*) eta honen adnominalaren (*bako*) adiera nagusia, eztasuna edo gabezia da.

Forma eta aldaerak: Gaurregun ahoz zein idatziz nagusi dan forma *barik* da, eta honen aldaera zaharragoa, *bagarik*, klasikotzat jo leiteke.

– Izenekin ugaria da, batez be izen mugagabeekin: *behar barik egon, gogo barik ibili, konorte barik gelditu, oinetako barik ibili, suber - te barik bizi, telefono barik egon,* e.a.

Izen-multzo konplexoagoekin be mugatzaile barik ohi darabilgu:

Denpora on barik hobe da etxean gelditu eta bapez kanpora urten.
Inoren beharrizan barik konpondu gara orain artean.
Eskean ibilteko premina barik ateraten eban bizimodua.

Baina izen mugatzailedunaz be erabil daiteke, eta lehenago gaur baino gehiago erabilten zan:

Zure laguntasuna barik be irabaziko genduan ziurrenik.
Gure diruak barik ezin izango leuskioe oraingo egitureari eutsi.

– Aditz partizipioaren ondorik darabilguneko kasua ugaria da, ezezkako modalitate edo zelakotasuna adierazoten dauana:

Bertara joan barik ezin jakin leiteke hango barririk.
Geratu barik dabil jan eta jan.
Ikusi barik ezin emon nei eretxirik.
Begiratu be barik igarriko leuke zer dan; usainetik bakarrik.

– Izenordainekin be erabilten da:

Gu barik konpontzen da edozetako.
Ha barik futbol taldeak asko galduko leuke.
Ezer barik be ez gagoz ondo. Ezer be barik gelditu da.

– Zenbatzaileekin:

Asko barik be badakigu biziten.
Emoidazu apur bat, baina lar barik.
Zenbat barik itxi zaitue?
Bape barik itxi nabe.

– Aditzondo, adizlagun eta antzekoekin:

Berandu barik hilko da, oraingo moduan segitzen badau.
Hara barik be badago hemen zeregina franko!
Oraindino ohera barik nago, gau guztian behar eta behar.
Hemendik urrun barik bizi da.

– Lexikalizazioen artean aitatu daiguzan: *hainbarik,...*

Lehen surretarik be dirua dariola ikusten zan, eta orain hainba - rik dago.
Osasuna derriorra da bizitzan. Hainbarik be zoritxarra berez etorten da.

• BARIK (2)

Erabilera: izen sintagma edo sintagma atal baten ondoren, edo aditzondo edo adizlagun baten ondoren, edota aditz partizipio baten ondoren erabilten da.

Zentzua: zerbait baiesten da, kontrakoa ukatuz. Bataren lekuan bestea, bataren ordez bestea, bata egin beharrean bestea.

Adibideak:

Gaurko batzarra zortziretan barik bederatziretan izan balitz, jente gehiago batuko zan.
Zu barik neu joango naz dendara, oraindino makal zagoz eta.
Polita barik motza izan da.
Ondo barik txarto ibili ginan.
Datorrena barik doana da nik ezagutzen dodana.

Autoreetarik:

«Nik, *firi-firi* barik, *piri-piri* esango neunke» (Zamarripa *Firi firi*)

«Ta geure geurea dogun Unamuno jaun orregaitik, *geure Unamuno* esan barik, *Unamuno geurea* esan bear dodala deritxat neuk » (Zamarripa *Firi firi*)

• **BARRI**

Adibideak:

Jan barri gagoz.
Ezkondu barritan, batean zinera, bestean afaltzen, batera eta bestera ibilten ziran.

• **BARRU / BARRUAN (barrutik, barrura, barruko)**

Idazkera: bereiz idatzirik.

Erabilera eta zentzuak:

(1) *Barru* denbora eremuan erabilten da, berbetan gagozanetik eta etorteko dagoan denbora-gune baterako tartea adierazoteko.

– Izen sintagma mugagaberi *barru* atzean ipinita batzutan:

Egun bi barru daukat azterketa.
Hilabete barru ezkontzen ei da.
Urte batzuk barru Bilbok lehengo antzik be ez dau eukiko.
Beste hamar urte barru be Euskal Herriko arazoak antzean egongo dira oraingo marrtxan.

– Gen. edutezkoaren ondorik erabilten da beste batzutan *barruan* (*barruko*):

Hiru egunen barruan ez badituzu aurkezten agiriak, zure eskabidea atzera botako da.
Bost egunen barruan konpondu behar izan ebazan arazo guztiak, urtebeterako Ameriketara joateko.

(2) *Barruan* (*barruko, barrutik, barrura*) lekutasunaren eremuan be erruz erabilten da, *barnea* edo *barruko gunea* adierazoteko:

– Mugagabez:

Erakunde barruko auziak kanpora ateratea egotzi deutse kide bati.
Kartzeka barritik kanpoan zer jazoten dan jakiten gatx dago.
Garaje barrura sartu eta dana ilunetan ikusi ebanean, bildurrak hartu eban.

– Gen. edutezkoaren ondorik:

Osagileak etxearen barruan egoteko gomendatu deutso, hotzak hartu ez dagian.
Oleatu bortitz batek jota uraren barrura joan zan itsasontzia.

• BAT

Zenbatzaileekin, gitxi gorabeherako kopurua adierazoteko:

Hamar bat lagun behar dira taldea osotzeko.
Hogei bat euki ezkero, nahikoa da.

Izenekin, -*en* gen. ed. atzizkiaz lagundurik, zehaztugabe edo ezagutu bakoa izatea markatzeko:

Gaiztoren bat, txikiren bat, zatarren bat...
Katuren bat, lapurren bat, zorriren bat...

• BATERA, BATEAN

Idazkera eta itxura: bereiz idatzirik. Aldaera nagusia *batera* adlatibokoa da; *batean* klasikoagoa da.

Erabilera eta balioak. Erabilera bat baino gehiago ditu, eta balioak be bai:

(1) Soziatiboko IS baten ondorik, laguntasun edo alkartasuna adierazoten dau gehienbat, baina baita denbora eremuan ekintza bi alkarren jarraiko izatea.

Beste guztiakaz batera, gugaz batera, lagunekin batera.
Txoriakaz batera oheratu eta eguzkiagaz batera jagitea lakorik ez dago.

(2) Aditz partizipioaren ondorik, *(e)ta* juntagailua lokarri dala erabili ohi da sarri, ekintza biren arteko bat-batekotasuna adierazoteko:

Jan eta batera ez da sartu behar uretara.
Gurasoak ikusi ta batera hasi zan irribarrez hiru hilabeteko umea.
Norbera berbetan hasi eta batera hasten dira besteak be txistuka eta barrez.

Partizipio instrumentalaren ondorik darabilgunean be balio bera gordeten dau. Bigarren hau klasikoagoa da:

Txistua entzunaz batera joaten da txakurra behien atzetik.
Partidua hasiaz batera sartu eben etxekoek lehenengo gola.

• BEHARREAN

Idazkera: bereiz idatzirik.

Erabilera: Bereiz idatzirik. Aditz partizipioei loturik.

Esanahia:

(1) Ordezkotasuna: hau ez eta bestea bai, hau barik bestea.

Etxean egon beharrean, urteizu kanpora, haize apur bat hartzen.

Ura edan beharrean, ardaoa garbitzen dau polito.
Gauzak konpondu beharrean, lehen baino txarrago ipinten ditu.

(2) Denbora-puntua: zerbait jazoteko zorian edo puntuan.

Alkarri musturrak apurtu beharrean ibili dira auzkan.
Alkar jan beharrean dabilz musuka.
Beheko trokara jausi beharrean igaro eban autoaz bihurgunea.

• BE / BERE, bat. ERE

Idazkera: Bereiz idatziko da orokorrean.

Baina, konposizio bidez, lexikalizazioa gertatu dan kasuetan loturik. Hatakotzat jo leitekez: *ezebe / ezebez*, *bape / bapez* eta halakoak.

Formak eta aldaerak: Bizkaiera tradizinoko forma orokorra *bere* da. Forma hau, gaurregun be halantxe osorik ahozkatzen da Mungialdean, Txorierrian eta Bizkaiko kostaldeko zati handi baten (Uribe-kosta, Bermeo, Elantxobe). Bestetik, *be* da gainerako bizkai hiztunek darabilen forma, eta gitxienez XX. mendean idatziz be nagusitu dana. *Ere* ez da bizkai tradizinokoa, beste euskalkietakoa baino.

Proposamena:

a) Bizkaiera idatzi arruntean *be* bultzatu.

b) *Bere* forma klasikoa be ontzat emon, berariaz eredu jaso edo klasiko tankerakoetan, edota ahoz erabilia dan azpieuskalkietan.

Era berean, tradizino idatzian legez idatziko da *edozeinbere*. Ad.: *edozeinbere gauza*.

d) Konposaturiko hitzetan be jokaera berbera: *bape* (/ *bapere*), *ezebe* (/ *ezebere*), *arean be* (*arean bere*), *baita be, halanda be, halanda guzti be, be bai, be ez*, e.a.

Erabilera: *be* (*bere*) atze-posizioko hitz bat da, ia edozein gramatika kategoriaren ondorik ipini leitekeana: izen, izenordain, adjetibo, aditzondo, aditz eta halakoekin. Halan:

Ortodoxoen artean abadeak be ezkontzen ei dira.
Aberatsa be bada, baina polita ez ostera.
Barriro be hartuko leuke, nok emon baleuka.
Ezkondu danean, ostera be etorri da jaio zan herrira.
Futbolean ezeze, bizikletan be ondo moldatzen da.

Errepika-esapideen barruan be ugaria da: *ondo be ondo, txarto be txarto, ona be ona, esan be esan,* e.a.

Goian ikusi ditugunak lako *bape(z), ezebe(/z)* forma eginetan batera idatzi arren, gehien-gehienetan *be* + *ez* banan idatzi behar da, erdian be beste elementu batzuk tartekatu daitekezala:

Ezer be ez dot behar. Ezek be ez nau ikeratzen. Ezegaz be ez dozu engainatuko. Ezegaitik be ez leuke salduko.
Inok be hagaz ez dau gura ezer jakin.
Nik be gaur ez neuke orduan egin nebana atzera egingo.

• BEGIRA

Erabilera eta balioa:

– Adlatiboaren ondorik, begiz ikusten egotea adierazoten dau:

Batera eta bestera begira egon da luzaroan, ea ezagunen bat ikusten ete dauan.

– Datiboaren ondorik, goiko zentzu bera dauka:

Nori edo zeri begira zagoz, begirik mogitu be barik.

– Gen. edutezkoaren ondorik, itxarote adiera euki ohi dau:

Ordubete eta gehiago egin dogu Patxoren begira, eta egertzen ez!

• **BEHE-, -PE- (ik. beherago: -PEAN)**

Idazkera:

– Bigarren forma izenari loturik idatziko da. Halan: *mahaipean, surpetik, oinpeko, besapean*.

– Lehenengoa barriz banan: *inoren aginduaren behean*.

Erabilera eta balioak:

– Genitibo edutezkoaren ondorik erabilten da *heriotzearen behean* erako egituretan. Erabilera klasiko honen ordez gaurko hiztunek *-en azpian* erabilten dabe gehiago.

Testuetarik:

> «gomutaurik gizon errukior ta prestuben agindubaren beian zorijonekuaguak izango ciriala» (Mogel *PA* 152), «Zerren Elexako Agindubak ez gaituben biartu edo obligetan kalte andiaren beian» (Mogel *DC* 209)

– Kasu instrumentalaren ondorik erabili izan da eta erabilten da oraindino *buruz behera* ereduko egituretan. *Behera* adlatiboaz ganera, *behean, behetik, beheko* erakoak be bai. Gaurregun arteragoko mendeetan baino erabiltearen arrazoia hau da: *-az behean* egituraren ordez *-en azpian* erakoak nagusitu izan dirala.

Testuetarik:

> «Zuri zor deutsut Jangoikuaz beian neure izatia» (Mogel *CO* 54), «lotsatu ta buruz bera legez ibiltia Jangoikuaren aurrian» (Mogel *CO* 100), «Baña zerubaz beeti nun arkitu ginai ordu ederragoric berorregaz egoten baño?» (Mogel *Serm* 71)

• BESTE / BESTEAN, BESTEKO...

Idazkera: aurreko hitzetik bereizirik.

Erabilera: Izen edo izen-multzo, aditz jokatu, aditzizen, aditz partizipio, aditzlagun eta beste kategoria batzuei dautsela agiri daiteke:

– Izen, aditzondo eta halakoekin:

Guk beste edo gure beste; hemen beste edo hemengo beste, zuentzat beste edo zuentzako beste.

– Aditz jokatuaz:

Bakotxari berari jagokon beste; guri, geuri emoten deuskuen beste.
Nahi dan beste, gura dan beste, behar dan beste...

– Aditzizenaz, toki-genitiboaren ondoriik:

Norberak jateko beste ipini ezkero mahaian, ez da zetan gehiago eskatu.
Garraisika eta orroaka hasi zan, edonor ikaratzeko bestean.

– Aditz partizipioaz, *-(r)iko / -tako* atzizkiaren ondorik:

Berbaz esaniko beste ordaindu behar deustazu, ez gehiago ez gitxiago.
Ezin emon geinkeo berak eskatutako beste, ze ezpabe geu itxiko gaitu bape barik.

– Esapide eginen barruan be erabilten da, orduan be banan idatzirik:

Behar dan beste (ahoz *bidanbeste* e.a.), *ahal dan beste, gura dan beste* (ahoz *gudanbeste* e.a.).

– Kantitate-egituren barruan txertaturik, lexikalizazio osoaz: *hainbeste, horrenbeste, honenbeste.*

Hainbesteko adoreagaz uger egiten beste bat ez dot ikusi.

Horrenbesteko amorrua jateko eta edateko zelan euki lei pertsona batek!

• BESTE BARIK (kl. beste baga)

Erabilera:

– Aditz partizipioaren ondorik, honi *-(a)z* atzizki instrumentala erantsita:

Testuetarik:

«I. Zelan egin leite gauza bat ezebereezetik? E. Jainkuak gura izanaz beste baga.» (Mogel *DC* 14)

– Aditz partizipioaren ondorik, erdian *eta* juntagailua dala:

Berba egin beharretan, ikusi eta beste barik begiratu eban beste aldera.

Testuetarik:

«Hori da kutxiloaren zorrotza / Ikusi ta beste barik hilten deust bihotza» (Frantzia kortekoaren balada)

• BIDER / BIDERREZ

Forma: *Bider, biderrez* eredua hobetsiko da *bidar* aldaeraren ondoan.

Erabilera eta esanahia:

a) Zenbatzaile-kategorien ondorik eta banan idatzirik erabilten da. Jazoera baten maiztasuna edo bidertasuna adierazoteko darabilgunean *bider* hobesten da *biderrez* inst. baino lehen. Halan:

zenbat bider, hainbeste bider, mila bider, bi bider, hiru bider, bost bider, zazpi bider, hamaika bider, hainbat bider, horrenbeste bider, edozenbat bider, asko bider, berein bider, zazpi bider zazpi.

Ohartu bedi, bizkaieraz be *bi bider* esaten dala. Dana dala, bizkaitar hiztunen artean *birritan* zabalago dabil.

Behingo jazoera adierazoteko, *behin* eta *baten* erabilten dira, baina ez **bat bider.*

Hiru bider, lau bider esapideagaz lehian daukagu *-tan* inesiboa be: *hirutan, lautan, seitan.*

Hizkera batzutan, *bider* soilaren ordez, *biderrez, biderren* eta halakoak erabilten dira. Bermeoko euskeran *biderren* ines. zaharduna: *lau biderren.*

Toki-genitiboaz be erabili daiteke: *biderreko:*

> «Ezin badozu garbiro emon zeinbat biderrekoa, esan zeinbat izango zan gitxi gora bera» (Zabala *Irun* 37)
>
> «zeure kabutan [zeurez-ean] ta zeure buruaren aurretik izan dozuzala bost edo sei biderreko garbi eztirean ukiera [ukutza] aldiak» (Zabala *Irun* 42)

b) Zenbatgarrenez jazoten da zerbait adierazoteko, *biderrez, bide - rrean* eta antzekoak erabilten dira:

– *biderrez:*

Ahots berbera entzun eban hirugarren biderrez
Azkenengo biderrez esango deutsut, eskolako beharrak egiteko.
Lehenengo biderrez eta bigarren biderrez esanda be jaramonik be ez; hirugarrenean egin deust kasu.

– *biderrean:*

Azkenengo biderrean egin eban legez irabaziko dau oraingoan be Atletik-ek.

«Alan irugarren, laugarren ta geijago **biderrian** dua ondu baga beti berba onak emoten dituzala» (Mogel *CO* 92)

• **BILA**

Idazkera: bereiz.

Erabilera:

– Izen edo izen multzoari zuzen erantsi leikeo, honek ezelako mugatasunik ez dauanean, edo bestela gen. edutezkoaren bidez. Bizidunekin: *lagun bila, lagunaren bila, lagunen bila.* Bizigabeekin: *ogi bila, ogiaren bila, ogien bila.*

– Izenordain, erakusle, zenbatzaile eta zehaztugabeekin beti lotuko da gen. edutezkoaren bidez: *zeren bila, noren bila, honen bila, zer - baiten bila, askoren bila, bosten bila.*

– Edutezko izenordainekin erabilten da, pertsona-izenordainekin barik: *nire bila, gure bila, zuen bila, euren bila.*

– Posposizio ez dala be erabilten da, aditzondo bakun legez: *Bila dabil, ez dakigu zeren ez noren.*

Adibideak:

Beti dabil atxaki bila, beharrik ez egiteko.

Peruren emaztea etxean dago eta zoaz haren (beraren) bila. Datorrela arin!

Lagunen bila dabil batera eta bestera, geratu be egin barik.

• DALA ETA EZ DALA

Dirua dala eta ez dala, atzenean haserretu egin ziran.

Abade barria dala eta ez dala herrian gorabehera handiak izan dira.

Gizon mozkortia dala eta ez dala zenbat disgustu andra koitade -ak!

• DUIN

Formak: Bizkaierako tradizinoan *duin* agiri dan moduan, ekialdean *doi* be erabilten da.

Erabilera: *-ko* genitiboaz eta aditzizenetan *-teko* atzizkiaz alkartzen da.

Esanahia: neurri bardineko gauzak konparatzeko erabilten da; *beste, adina* hitzen hurrekoa.

Testuetarik:

«ogija irabazteko **duin**» (Mogel *PerAb* 70),

«jaazteko **duin duina**» (Mogel *PerAb* 90),

«orretako **duin** ezpagara bere» (Mogel *DC* 310)

• EDO

Idazkera: Juntagailua barik, aurreko hitzari atxikiriko hitz enklitikoa danean, marra batez lotu leikikeo hari.

Erabilera: Hitz enklitiko legez erabilia dan ginoan, hitz kategoria askotarikoen erabili daiteke: izen sintagma (izen eta adjetibo), aditzondo eta adizlagun, aditz partizipio, aditzizen e.a. Halan:

Etzi-edo jokatuko dira Errege-kopako finalerdietako partiduak.

Zeozer beharko da etxe guzti hori erosteko, dirua-edo esan gura dot.

Beste inor ez dago libre eta zeuk-edo joan beharko dozu aurkez - penera.

Luzaroan itxaroten egon barik, mogitu-edo egin beharko da.

• **EDU**

Idazkera: bereiz idazten da.

Forma: Aldaera nagusi bi ditu: *edu* arrunta eta *eredu* klasiko eta osoagoa. Bitzuon forma deklinatuak be ezagunak dira: *ereduan/eduan, ereduko/eduko.* Gaurregun berbaz oraindino dirauana *edu* da. Hagaitik bada, honi emongo jako idatziz lehentasuna, *eredu* esparru jaso edo klasikoago baterako gelditzen dala.

Erabilera: Izen edo IS baten ondorik erabilten da gehienbat, neurri bardineko konparazioa markatzen dauala.

Guk edu egiteko kapaz da.

Testuetan:

> «Alan jausi jakon mardotasuna, laaztu ulia, agertu saiats azurrak, miatu ankia, leena zana ondo igarri ezin zan ereduban.» (Mogel *Ipuinak* 28), «Zein gitxi jarten dirianak eureen jaijotziari jagokan terzijo edo ereduban!» (Mogel *Ipuinak* 54)

> «Ia dagoz dantza atan gizonezkorik edu emakume, edo mutilik edu neska» (Bartolo *Olg* 66), «ta noberak edu ondasun, jakiturija edo entzute ez daukeenai, kasurik ez egitia" (Bartolo *Icas I* 50), «Orregaiti meza bakotxak balijo dau, Jesusen Kalbarioko erijotziak berak edu »(Bartolo *Icas I* 163), «popuertza jakin biar ditugun, egija santuben ezauberarik ez daukee urrineti bere seme alaba askok, aita ta ama edu azita egon arren» (Bartolo *Icas I* 193)

«beguira zeuen arimeari, eta jagon egizue zor jakan bestean [eduan, aleginean]» (Zabala *Aran* 193)

• **ETA (/ TA / -TA)**

Idazkera: bereiz idazteko joera nagusi dirudi gaurregun: *daki eta, dabil eta, eukan eta.* Halanda be, bereiz idazte horrek anbiguitatea sortu leike mendeko kausa-esaldietan, esaldia aditz + *eta* amaitu beharrean, atzetik osagai gehiago dituanean. Orduan marra erabiltea argigarri gerta leiteke. Adibidez:

Fedea euki eizue nigan, neu naz-eta guztion jaun eta jabe.
Agurtu eizu behar dan moduan gizon hori, berori da-ta orain artean mesederik gehien egin deuskuna.

Forma eta aldaerak: pospositibo edo atzekaria danerako be, emendiozkoa danerako lez, *eta* forma osoa erabiltea gomendatzen da ahal dala. Dana dala, aurreko aditza bokalez amaitu daitenean (batez be *-a, -e, -o*, halan *da, dabe, dago*) *ta* aldaera laburtua idaztea ontzat emongo da.

Erabilera:

(1) Aditz jokatu baten posposizio izan daiteke, arrazoi-emotezko esaldietan.

Sintaxi-arautzat onartzen bada /Adtz + ETA/ multzoa esaldiaren azken posizioan kokatu beharra, nahikoa litzateke aurki koma bat (,), ondoren datorrenetik bereizteko.

Kausazko esaldia ondoriokoaren aurrean kokaturik darabilgu batzutan.

Gabon dogu eta, jo daigun krisketa.
Azkenengo eguna da eta, goazen guztiok dantzara.

Sasoia da (e)ta, bazkaldu daigun.
Umea da eta, parkatu egiozu!

Atze-posizioa, aurrekoa baizen ugaria edo ugariagoa da, ostera:

Itxaroizu apur baten, oraindino goiza da eta.
Kendu zaitez hortik, traban zagoz eta!
Hartuizu badaezpadan jakea, haizea dabil eta.

(2) Izen eta beste kategoria batzuri loturik be sarri erabilten da, emendiozko balioaren luzapen modura. Holakoetan marra erabiltea (-) komenigarria da. Halan:

Mikel-eta datoz gaur gurera afariten.
Nortzuk irabazi dabe, Jesusek-eta ala beste taldekoek?
Artagaraunak , komeni izaten da eukitea etxean, oiloentzat-eta.
Bakotxari launa-ta, bostna-ta emon ei deutsiez.

Autoreetarik

Egitura honen lekukotasunak ez dira oso zaharrak. Mendebaldeko autoreetan, dana dala, adibide esanguratsuak aurkitu leitekez. Berbarako, J. M. Zabalagan:

> «Ara entzun kontuz, guztioi on egingo deutsueta» (*Irun* 112),
>
> «besteak bere egiten ebeenda, niri bere barreak urteten eustan» (*Irun* 141)
>
> «Ez ibili, bada, […] indarka askatuteko: zeure buruari kalte ekarri, ta besterik egingo eztozuta» (*Irun* 174)

• EZEAN

Idazkera: Bereiz idatzirik.

Erabilera: Gehienetan aditz partizipioekin erabilten da (*joan ezean*), baina baita beste esapide batzuen barruan be: *nora ezean*, e.a.

Esanahia bitarikoa izan daiteke:

(1) Ezezkako baldintza: *ezik* hitzaren parekoa.

Lagunik ezean ez dago inora urteterik.
Goizetik jagi ezean, beharrak guztiak egiteko astirik ez dau emo - ten
Egin ezean ez dago.

(2) Modua, zelako egoera adierazoteko:

Nora ezean gagoz.
Zer egin ezean nago, edo taxia hartu edo neure autoan joan.

• EZEZE ... BE

Idazkera eta itxura: aurreko hitzetik bereizirik idazten da. Posposizioa berak be idazkera bat baino gehiago dauka: *ez eze(n), ez--eze(n), ezeze(n).* Gaurregun hiztunontzat guztiz lexikalizaturik dago. Halanda ze, loturik erabilten dogu.

Ezeze / ezezik bikotea dala-ta, Bizkai euskeran *ezeze* zabalago dabilela esan daiteke.

Erabilera eta esanahia: Emendiozko loturaren balioa dau. Lehenengo osagaiaren ondorik erabilten dan legetxe, bigarren osagaiak *be* atzekaria hartzen dau sarritan. Bakanago, bigarren osagaiak *baita* eroan leike aurretik.

Adibideak:

Gu ezeze beste asko be joan dira.
Gaurko ezeze biharko be gorde beharko da apurren bat.
Aitak ezeze semeak be polito ekiten eutsan otzaraginen.
Han ezeze, berton be badago beharrizana galanta.

Dirua, gastatu ezeze, irabazi be egin beharko da, ezerezean gera - tu gura ez badogu.

• **EZIK**

Idazkera: bereiz idatzirik.

Erabilera eta esanahia: aditz partizipioaren ondorik erabilten da ia beti: *esan ezik, ikusi ezik, hartu ezik.* Egitura horren balioa, ezezkako baldintzarena da. Halan:

Ikasi ezik, ez dozu emaitza onik aterako.
Jan ezik ez dago indarrik.
Ibili ezik gorputza sortu egiten da.

Badau bigarren erabilera-kontestu bat be, zeinetan zelakotasuna edo modalitatea adierazoten dan. Aditz partizipioari *gura ezik* egitura atzean joakola, hatan be:

Dan alperragaz zotzik albora mogidu gura ezik dago.
Gizona hil jakonetik ezetako gogo barik dago, jan gura ezik, inora urten gura ezik, eta ezer be egin gura ezik.

• **EZINIK**

Idazkera: bereiz idatzirik.

Erabilera: aditz partizipioaren ondorik.

Adibideak:

Nagoan lekuan egon ezinik nago minaren minaz.
Ebakuntza egin deutsienik eta gehiago berba be egin ezinik nago.
Behin zahartzarora ezkero, edo ibili ezinik, edo ikusi ezinik, edo entzun ezinik... beti atxakiaren bat.

• EZTA

Erabilera eta balioa: Itaun perpausa baten atzenean kokaturik erabili daiteke. Halakoetan itaungileak, bere buruan dauan ustea edo susmoa baietsi egin gura dau *ezta* atzekariaren bidez.

Bai ezta?
Bihar barikua da ezta?
Matxalen ezkonduta dago ezta? Hori entzun dot.

• EZTEKO, EZTEA...

Bizkai mendebaldean aditz partizipioaren ondorik ezezkako nominalizatzea *ezte-* markaren bidez be egin daiteke. Erabilten danean, banan idaztea gomendatzen da. Halan: *egin ezteko, esan eztekotan, emon eztea*.

Adibideak:

Erosi eztekotan, zetako zabiltza adi eta adi eskaparateari!
Zetako erosiko dozu ba, gero bape jantzi ezteko?

• (-)EZKERO / -(E)Z GERO / -NEZKERO / -NEZ GERO

Itxura: Aldaera nagusiak *ezkero* eta *azkero* dira, bitzuk tradizino klasikoan ondo sustraituak. Lehenengoari emongo jako lehentasuna, *azkero*, erabilia dan azpieuskalkietarako lagata (Arratia, Goi Nerbioia). Jokabide bera hartuko da beste aldaerekin be: *ezkerokoan, ezketino,* e.a.

Idazkera eta erabilera:

a) *(-)ezkero* hitz edo atzizki lexikalizatutzat hartuko da bizkaieraz, gaurregungo hiztunok eta erdi-mendebaldeko tradizino idatziek fin-

katu daben eran. Halan bada, *ezkero* idatziko da, *-ez gero* eredu estandarrerako lagata.

b) Lexikalizazioetan loturik idatziko da. Halan, *honezkero, harrez -kero* aditzondoetan.

c) Aurreko hitzari loturik idatzi leiteke, partizipioaz edo aditz jokatuaz doanean. Joera nagusia, halanda be, banan idaztekoa izan da tradizinoan.

d) Izen sintagma bati darraionean, eta sarritan *-ra* adlatibodunari, banandurik idatziko da. Halan:

Edade batera ezkero errazago ahaztuten dira gauzak.
Sasoi batera ezkero gorputzak beti dauka atxakia.
Hamarrak ezkero beti egoten da gurean nor edo nor.
Autoan eroan eta ekarri, eta gainera bazkaria ordaindu?
Horretara ezkero, beste asko be pozik joango zan.
Behin hara ezkero, ez dau merezi atzera etorten ibilterik.

• **GAINEAN (ganean), GAINERA, GAINETIK**

Idazkera: bereiz.

Itxura: *gainean, ganean,* bitzuk dira ahoz erabiliak. Idatzirako *gai -nean* hobetsi leiteke orokorragotzat, *ganean* (*ganetik, ganeko, ganera*) Bizkai mendebaldeko azpieuskalkietarako lagata.

Erabilera eta balioak:

– Genitibo edutezkoaren ondorik:

Sasi guztien azpitik eta laino guztien gainetik.

– Instrumentalaren ondorik, *-(a)z gainetik, gainera, gaineko* eredukoak eregiaz. Gaur erabilera urriagoa izanagaitik, guztiz gomendagarriak dira erdarazko ‘además de’ juntadura-balioa adierazoteko:

Balioak:

– Tokitasunaren eremuan, gaineko posizioa adierazoteko.

– Gai edo materia baten inguruan jardutea edo gai hori gogoan erabiltea adierazoteko.

• -GA (-KA)

Idazkera: loturik idazten da, eratorketan ohi dan lez.

Erabilera: izen sustantiboei dautsela erabilten da, izenak adierazoten dauan edukiaren eztasuna edo gabezia aditzera emonaz. Erabilera mugatua dauka edozelan be. Halan eihoak dira honako lexikalizazioak: *artega, deunga, egoska, gangarge, indarga, kolorga, loka, moldaka, sendeka, siniska* eta beste batzuk.

Lorik be egin ezinik, artega igaro dau gau guztia.
Ume deungeagorik nekez topatu leiteke inon.
Gosaririk jan barik egoanez, indarga sentitzen izan da arineketan egiteko.
Ladrilu batzuk loka dagoz horma zaharrean.
Arpegia zurbil eta kolorga euki dau zorabioa emon eta gero.
Gure txakurra jangarge dago aspaldion.

Testuetarik:

«Lotsaga nindin / oguiz ase nindin» (*Refr.* 263)

Ikus beherago: *-tzeka / -teka.*

• (-)GARREN

Balio nagusi bi ditu: zenbaki-ordena adieraztea bata, eta denbora--epearen atze-muga markatzea bestea.

(1) -GARREN ordinala.

Idazkera: zenbakiei loturik idatziko da. Ad.: *zenbatgarren, bigarren, zazpigarren, hogeigarren, ehungarren, milagarren, hainbestegarren.*

Adibideak:

Bigarren urtea.
Zenbatgarrena da hau? Hamargarrena.
Hauxe da bostehun eta hirugarrena.
Hogeita bostgarrena dogu abenduan / kontentuaren handiz guztiok poz gaitean.

Bat zenbakiarena bestelakoa da: *lehenengo.* Zenbaki-katearen hasiera adierazoten da *lehen* edo *lehenengo* ordinalaren bidez. Katearen atzerengo unitatea, *azken / azkenengo* edota *atzen / atzenengo* formen bidez adierazoten da. Eta hurrengotasuna, *hurrengo* formaren bidez.

Adibideak:

Lehenengo kapitulua. Azken arnasa. Hurrengo txanda.

(2) -GARREN denbora-markatzailea

Idazkera: bereiz edo banandurik idatziko da.

Esanahia: denbora-tarte baten azkenean jazoten dala zerbait adierazoteko.

Erabilera: denbora-eremuko sintagmei dautsela. Eredurik gehienetan zenbaki bat eta denbora-izen bat dogu: *ordubete, egun bi, hiru aste, hilabete, hiru hilabete, bost urte...*

Adibideak:

Hiru hilabete garrenera...
Urtebete garrenean...

Deierak egin eta aste bi garrenera ezkondu ziran.
Bost egun garrenean...
Handik ordu erdi garrenera...
Minutu bat garreneko hemen daukazu barriro.

Beste denbora-egitura batzuei be ondo joako:

Luzaroak garrenean be gaisorik egoan.
Apur bat garrenera etorri zan atzera.
Handik denporak garrenera.

• GINO, GINOAN, GINOKO

Idazkera:

– Bereiz idatziko da aditzari darraionean: *Gordeten dozun ginoan izango dozu geroko be.*

– Lexikalizazioetan lotuta: *oraingino, orduragino* eta beste. Izenordain eta erakusleekin be lotuta: *no(ra)gino, zeta(ra)gino, horre - tagino, hatagino...*, nahiz testuetan sarritan bereizirik agiri.

– Adlatiboari darraionean be loturik idatzi leiteke: *nogino* edo *noragino, zetagino* edo *zetaragino, honagino...*

Erabilera:

– Aditz jokatu erlatiboaz batera erabilten da sarritan (*dan ginoan*).

– Aurreko izenari gen. edutezkoaz alkarturik be bai (*haren ginoan*).

– *Ginokoa*, edo *-ra* aldatiboaz edo izen soilari dautsala erabilten da:

Zetaragino heldu leiteken bat, aurretiaz ezin jakin leiteke.
Dolarrak noragino igon behar ete dau oraingo martxan.
Zaharrak, gazteak eta umeak ginoko guztiak batu ziran plazan.

Esanahia:

(1) Bardintasun-neurriko konparazioaeko konparazioa adierazoten dau honakoetan, *eduan*, *bestean* edo *gainean* formak legez:

Dinotsudana sinestu, gero! Dan ginoan sinestu.

(2) -*ginoko* adnominala, batez be erakusleei dautsela, goren neurriko konparazioa adierazoteko erabilten da:

Hataginoko inuzentea, baina, zelan izan zeintekez?
Honetaginoko suerterik eukiteko be!
Horretaginoko lotsabakokeririk sekula ez da ikusi!

(3) *dan ginoan* esapideak esangura egina dauka: ahalean, ahal dan guztian.

Han ibili ziran arineketan, dan ginoan.
Ate eta leiho guztiak dan ginoan itxita joan da.

Autoreetarik:

«Gero ori asko eztala baaki, ta bigarren ibil-aldi bat egin, ta batuten deutsaz mats-orri artean ezkutaurik [ostendurik, osteiturik] gelditu jakazan lakaiñ-giñokoak» (Zabala *Irun* 4)

«ak ondo daki zuen barri guztia: ak ondo daki nogiño elduten direan zuen aleguinak» (Zabala *Irun* 30)

«Biurtu zaitez urrengo konfesiño ondo egineti oraingiño erabili dozuzan bideetati» (Zabala *Irun* 16)

«Orain gino esan doguna, lenengo moduko penitenzien ganean izan da» (Zabala *Bermeo* 109)

«azkenengo confesiño ondo eguinetic eta ordura-guiño batec eguin dituzan pecatuac» (Zabaka *Irun* 3)

«ze jakin bear dau zetara-giñokoa dan pekatua» (Zabala *Irun* 41)

• **GORA**

Idazkera: bereiz.

Erabilera:

– Izen mugagabearen ondorik:

Aldatz gora gehiago nekatzen da aldats behera baino.

– Instrumentalaren ondorik: *azpikoz gora, hankaz gora, eperdiz gora.*

– Inesiboaren ondorik: *kalean gora, mendian gora, aldatzean gora... joan, ibili, etorri.*

– Ablatiboaren ondorik:

Gure etxe ondotik gora joan da gazte aldra galanta, motxilak lepo-an dituela.
Etxetik goizean urten dauala bai, baina hortik gorako konturik ez dakit.

• **HARA, HARAKO (1)**

Erabilera: Bereiz idatziko da. Aurreko hitza izena bada, *-(r)ik / -tik* gen. atzizkiaz loturik erabilten da. Aditz partizipioaz be erabilten da hizkera batzutan: *egin hara, erre hara.*

Zentzua: Zerbait egin barri dagoala adierazoteko erabilten da, baina eremu semantiko mugatuan gehienetan: jatekoekin (*sartenetik hara, kazuelatik hara, labatik hara, arbolatik hara, sutarik hara*), jantziekin (*orratzarik harakoa*), eta bestelako batzutan (*oherik hara*).

Itsasotik harako arraina da hau.
Sutarik hara jan dogu lebatza.

Sartainetik hara dira gozo patata prijituak.
Besigua labatik hara jan dot.
Oherik hara hotzitzea erraza da.
Ohetik hara joan gara arrantzan.
Arbolarik hara jan doguz ikoak.
Garbirik harako erropak jantzi eta eleizara joan da harro-harro.
Jaizu ointxe egin hara, bero-bero dagoan artean, gero hotzitu egingo jatzu eta.

• **HARA (2)**

Idazkera: bereiz idatzirik.

Erabilera: Ablatiboa eskatzen dau: *-(r)ik hara* edo *-tik hara*, ia beti *atze* eta *albo* izenei dautsela. Ahozkatu, halanda be, *-rikera* egiten da Bizkai mendebaldean (*atzerikera, alborikera*).

Arrapaladan etorri eta atzerik hara jo nau.
Ezkerretik igaroten doala, alborik hara jo dau kamioi batek.

Adnominal legez be erabilten da: *-rik harako.*

Ze atzerik harako motza daukan mutil horrek!

Zentzua: Espazioan perspektiba adierazteko be erabilten da. Erabilienak, *atzerik hara,* eta *alborik hara* dira. Baina aurre posizioa adierazoteko, *aurretik, aurrez* edo *aurrez aur* legezko formak erabilten dira.

Aurretik ondo emoten deutso goneak, baina atzerik hara ez.

Autoreetarik:

«bear bada ustez uste baakoan atzerik ara mosu emon» (Zab *Irun* 44), «Orregaitik eztau il bear orrek atrapadu ez artu ustez uste bakoan ta atzetik ara legez» (Zab *Arantz* 204-5), «Ez berakautaco

nekeak, ez alborik arako ala arinen batzuk: ezpada neke gogorrak, neke itzalak, ezin geiagoko nekeak.» (Zab *Serm* 5);

• **LAIN**

Idazkera: bereiz idazten da.

Forma eta aldaerak: *lain* hobetsiko da *lagin* klasikoaren ondoan. Bigarren honek beste adiera bat dau gaurregun: 'muestra'.

Idazkera: Izenei laguntzen doanean, *-entzako* edota *-rako* helburu--atzizkiekin erabilten da, eta aditzizenaz batzen danean, *-ko* genitibodunari darraiokola.

Esanahia: *beste, adina, gaina* hitzak legez, bardintasun-neurria adierazoten dau. Adibidez:

Etxerako lain hartu ezkero ez da behar gehiago.
Mutil fina da. Horrek berorrentzako lain egiten dau.
Biziteko lain egin ezkero, zetako itoko zara lanean ba!
Sagardaoa, negu guztian edateko lain egin dogu behintzat.

• **(-)LAKO**

Idazkera eta itxura: bereiz idatziko da, lexikalizazioetan izan ezik.

Itxura: *Lako* forma hobetsiko da *lango* aldaeraren aurrean. Bizkaiko autore klasikoek *lango* formari jera handiagoa egin deutse orohar. Bitzuk darabilez autore nagusiek (Mogel, Añibarro, Zabala...), baina *lango* askoz gehiago. Halanda be, gaurregun joera nagusia *lako* erabiltearen alde dago.

Erabilera:

– Erakusleetan, loturik idatzita: *honelako, horrelako, halako, honexelako, horrexelako, haxelako, beronelako, berorrelako, beralako* . Galde-

-hitzekin eta euren eratorriekin bardin: *zelako, edozelako, zeozelako, ezelako*.

– Pertsona-izenordainekin banan idatziko da. Sintaxi bi dagoz. Absolutiboaren ganean: *ni lako, zu ako, gu lako, zuek lako.* Edutezkoaren ganean: *nire lako, zure lako, gure lako...* Beste izenordainekin be erabilia da: *bera lako, nobera lako, inor ez lako*, e.a.

– Izen arruntekin erabilera mugatuagoa dau. Halakoetan banandurik idatziko da: *gizona lako, gizonak lako, umea lako, umeak lako,* e.a. Baina lexikalizazio batzuk badira: *upealako.*

• -(A)LA-TA

Idazkera: Aditz-atzizkia dan aldetik *-(a)la* adizkiari loturik idatziko da. Honi loturik ohi darabilgun *eta /ta* posposizioa marra batez atzizkiari dautsala idatziko da. Beraz, *-(a)la-ta.*

Esanahia: hiztunaren barruko ustea edo informazio subjetiboa adierazoten dau atze-marka bikotx horrek.

Batzutan, kausazko mende-perpausak eregiten dira:

Beste batzar bat daukala-ta, gurera bape ez da agertu.
Gose zala-ta, beheko kafetegira joan da zerbait hartzera.
Zeuk egiteko dino, berak orain astirik ez daukala-ta.

Beste batzutan *egon* aditz nagusiaren mende agertu leiteke mende--perpaus hori:

Etorriko dala-ta nago, aurretik ezetzik ez dau esan eta.

Badira autoreak, atzizki bikotxa dana loturik erabili dabenak be: *-(a)lata.* Adib.:

«Dendadunak bere ezteutso emoten [esaten] dendeak dakarroiola lapurretan egiteko bidea: dendea ta jokoa galerazoko deutsalata» (Zabala *Irun* 42)

«Gurasoak, gurasoa zalata, egin eutsan soldadu andi bategaz ezkontzea» (Zabala *Irun* 112)

• **LASTER (lasterrean, lasterrera)**

Erabilera:

– Ablatibo atzizkiaz:

Lizentziatura atera eta handik laster (lasterrera) ezkondu zan.
Gure etxetik laster dago autobusaren geltokia.

– Aditz partizipioaz, *eta* juntagailua bitartean dala:

Jan eta laster ez da uretara sartu behar.
Telefonoz deitu eta laster etorri ziran ertzainak ezbeharra izan zan lekura.

– Aditz jokatuaz, honi *-nik* atzizkia ipinirik. Ahoz gitxi erabilia:

Munduko edozein konturen barri, jazoten danik laster izaten dogu irrati-telebisten bidez.

Balioa: denbora-epe labur baten ondoko jazoera bat adierazoten dau.

Testuetarik:

«Eldu jakon Basaurde bat gorrotoz ta amorruz (...), ta arik laster esetsi eutsan Leoe argaldubari, ta egin eutsazan epai andijak aguinakaz» (Mogel *Ipuinak* 10)

«itandu geure barrubari, naiko leukian gauza à egitia, eginda laster ill biar baleu» (Mogel *DC* 49)

«Jarri belaunico judegu madarikatubak legez, jagita laster belarrondokuak emoteko» (Mogel *DC* 350)

«Zer ikusten dau gorputzerik urten da lasterrean?» (Zabala *Serm Ar*)

«Zek galarazoten deutsue, goxean oetik jagiten zareenik laster, edo gauean oera baño leen, […] geldi geldi atan egotea? (Zabala *Irun* 186)

- **LEZ (LEGEZ), LETXE (LEGETXE), LEGEZKO**

Idazkera: bereiz idatzirik.

Itxura:

– Aldaeren artean *lez* hobetsiko da idazketa arruntean, *legez* maila jaso edo klasikoago baterako itxita. Bigarren hau da tradizino idatzian erabili izan dana. Mende honetan zabaldu dira batez be *lez* eta antzeko aldaerak (*letz*).

– Forma indartuetan be bardin, *letxe* eta *legetxe* formen artean aukera bardina egingo da. Bazterrekotzat joko dira *lentxe, laintxe* eta enparaduak.

– Adnominal modura erabiliezkero, *legezko* hobetsiko genduke *lezko* formaren ondoan.

Erabilera:

– Izenordain eta erakusleekin, absolutiboaren ganean ezeze, genitiboaren ganean be eregiten da: *hone(n) lez, horre(n) lez, ha lez / hare(n) lez, bera lez, berone(n) lez, berorre(n) lez, bate(n) lez...*

– Toki-denborako deklinazio-eremuan toki-genitiboaz lotzeko joera dago gaur egun, beste kasuekin baino gehiago: *hango lez, inoiz -ko lez* baina baita *inoiz ez lez* be, *zueneko lez* baina baita *zuenean lez* be, *gaurko lez* baina baita *gaur lez* be, *orduko lez* baina baita *orduan lez,...* Era berean: *antxina lez*

– Aditz jokatuekin *-an lez* ereduaren ondoan ezaguna da ondino *-na lez* Arratia eta Bizkai mendebaldeko beste inguru batzutan:

Berandu dana lez, ezin naz luzaroago zuekaz egon.

Adibideak:

Inor ez lez bizi da.

Testuetarik:

«Ac uste dau eztaguala bera leguezco Barberuric Bizcai guztijan» (Mogel *PerAb* 3), «odola ateratia gaiti ezleuquee zubec leguezcuac diru berezcoric eruan biarco» (Mogel *PerAb* 6), «Urte ascotan izan daigula alcarregaz gaur leguezco Apari bat» (Mogel *PerAb* 60)

• MODU-, MODUAN, MODURA, MODUKO

Idazkera: bereiz.

Itxura: *Moduan* da aldaera zabalena, Bizkai ekialdeko inguru batzutan *modura* erabilten bada be. *Moduko* adnominal legez darabilgunerako.

Erabilera:

a) Izen eta antzeko kategoriekin. Batzutan mugagabez. Adib.: *lagun moduan, abade moduan, gizon moduan.* Baita: *txabola moduko etxea, liburu moduko aldizkaria.* Beste batzutan genitibo edutezkoaren bidez. Ad.: *umeen moduan ibili, baserritarren modura berba egin,*

astoaren moduko belarriak. Baita toki-genitibodunei loturik be: *etxeko moduan hartu gaitue;*

b) Aditzizenekin: *erosteko moduko indabea; edateko moduko arda - oa. Agiri-agirian jarri zan, guztiok ikusteko moduan.*

c) Partizipioekin: *Etorritako moduan joan dan. Esaniko moduan, bostetarako etorri naz.*

d) Aditz jokatuekin: *Datorren moduan jo pelotea. Guk geuk daki - gun modura hitz egingo dogu. Geuk daukagun moduko autorea gura leukie beste askok be.*

• NAHASTEAN, NAHASTE

Idazkera: bereiz.

Erabilera eta balioa: soziatiboko sintagmaren ondorik erabilten da, norbait edo zerbaitegazko laguntasuna edo alkartasuna adierazoteko:

Zuhur ibili zaitez, onakaz nahastean indaba zaharrak saldu ez degizuezan.

Ume txikia be pozarren ebilen mutil bardingoakaz nahastean olgetan.

Gazteek be zaharrakaz nahastean gehiago ikasten dabe beharrean zein edozetan.

• ONDOAN

Idazkera. Bereiz idazten da, lexikalizazioetan izan ezik. Hatakotzat jo geinkez: *betondoa, sutondoa, ukondoa,* e.a.

Erabilera nagusiak:

– Izen soilaren jarraian:

Etxe ondoraino ausartzen dira neguan azeriak.
Jo begi ondoan eta luze bota eban behera.
Baten bat dago ate ondoan. Urteizu kanpora, ea nor dan.

– Gen. edutezkoaz:

aitaren ondoan, nagusien ondora, pinudiaren ondoko sasitzea...
noren ondoan, zeinen ondokoa, geure ondora, noberaren ondotik, alkarren ondoan...

– Aditz partizipioaz: *gaisotu ondoan.* Mendebaldeko hiztunek gaurregun gitxi darabile hau.

Balioak:

– Izen sintagmari dautsala, norbait edo zerbaiten *alboan* edo *alda - menean* egotearen toki-posizioa adierazoten dau.

– Aditz partizipioaz, denborako *gerokotasuna:* jazoera bat baino *geroago* gertaturikoa adierazoten dau.

Autoreetarik:

«Sartu zan barrura [Azerija], ta Otso ilaren onduan damu asko baga ase zan arikiz» (Mogel *Ipuinak* 30)

«barriz berari jaramonik egiten ez eutsala ta bakarrik emoten eutsela lasto zati bat, ta nosbait eskubete arto garau, biarra eragin onduan.» (Mogel *Ipuinak* 11)

«Azerija eguan gisatstegi baten zelata ikusten igaroten zana, ta barre eginda bere zokondoti urten onduan esaten deutsa Otso lurrian etzanari:... »(Mogel *Ipuinak* 47)

• **ORDUAN**

Erabilera:

– Aditz jokatu bakoekin, bai partizipioaz (*jan orduan*), bai aditzizenaz (*joatorduan*), bai *-teko* erako aditzizenaz (*joateko orduan*).

– Aditz jokatuekin: *joan dan orduan.*

– Izen adlatiboaz: *etxera orduan.*

• **ORDUKO**

Idazkera: bereiz idatzirik.

Erabilera:

a) Denbora-eremuko izenekin edo denbora-balioaz erabili daitekezanakaz erabilten da, modu bat baino gehiagotara:

– Kasu absolutiboaz: *bostak orduko, urte akabua orduko*.

– Izen eta beste kategoria batzuekin, adlatibo marka bitarte dala:

Hara orduko hemen, hona orduko han.
Etxera orduko berandu.
Mezara orduan, etxera orduan.

– Aditzondoekin: *Bihar orduko.*

– Aditz partizipioekin: *joan orduko, etorri orduko, jan orduko, ezer esan orduko,...*

Balioak:

a) Mendebaldeko euskeran gaurko hiztunentzat, denbora-puntu bat *baino lehenagoko* jazoera bat adierazoten da ia beti *orduko* posposizioaren bidez.

b) Erdialdeko euskeran beste balio bat gorde dau, mendebaldeko autore klasikoetan be gorde dana: denbora-puntu baten *ondo-ondoan, oste-ostean* edo *jarrai-jarraian* zerbait gertatu dala adierazotea.

• **OSTEAN (osteko)**

Idazkera: Banan idatziko da, baldin lexikalizaturik ez badago. Halan: *etxe ostean, hatx ostean, ate ostean, meza ostean, barau ostean, dantza ostean.* Baina: *afalostean, bazkalostekoa.*

Erabilera eta balioak:

– Izen soilari darraiola. Espazioaren eremuan, *atze* posizioa adierazoten dau. Denborarenean, zerbaiten *ondoko* edo *geroko* aldigunea. Adib.:

On eginaren pagua, ate ostean palua.
Garizumako barau ostean txarrikia jateko gogo galantaz egozan herritarrak.

– Gen. edutezkoaz. Honek be goiko balio berberak izan ohi ditu, espazio arlokoa zein denborakoa:

Okerreria egin eta gero, horma baten ostean ezkutatu ziran muti - koak.
Eguneko behar neketsuaren ostean, afari eder bat egitea ebatzi eben.

– Atzizki instrumentalari darraikola be erabilera ugaria dauka tradizio idatzian. Honek banakuntza edo bereizte zentzua euki ohi dau, *-az aparte, -az gainera* atzekarien hurrekoa:

Testuetarik:

«Badaukaguz oneez ostian zortzi basabei, ta basaidisko galant bat» (Mogel *PA* 57)

«Ijeliak darua biarsari edo aloger gejago, ta onek izan daruaz egunekuaz ostian, eskupeco edo atsegin sarijac» (Mogel *PA* 70)

• -PEAN

Idazkera: Izen hutsaz doanean, honen forma mugagabeari itsatsirik erabiliko da. Halan:

ohepean, izarapean, aterpea, eskepea, zerupean...

Erabilera: Nekez edo bakan erabilten da *-pean,* izen horrek aurreko edo atzeko laguntzaileren bat daroanean, izenlaguna, adnominala edo adjetiboa. Orduan *-aren / -en azpian* egituraz ordezkatzen da. Halan: *Gurasopean bizi,* baina *Guraso gogorren azpian bizi.*

Mendebaldean bakan edo nekez erabilten da genitibo edutezkodun izenari dautsala. Halanda be, autoreetan inoiz agiri dira honetarikoak:

«aita espiritualaren esanaren-pean beti egon» (J. M. Zabala, Irun 60)

• PEKOAN, PEKORA

Idazkera eta itxura: bereiz idatzirik. Atzekari hau *pekoan* eta *pekora* itxurapean erabiten da. Bitzuk dira erabilgarriak. Bizkaieraren ekialdean gaur entzuten dana (Ondarroa, Eibar, Markina...) bigarrena da.

Erabilera eta balioa: *-en* gen. edutezkoaz. Norbait edo zerbaiten ardurapean edo hak jagonda.

Adibideak:

Hil jakezan aita eta ama. Eta izekoa eukien lez, haren pekora geratu dira umeak.

Autoreetarik:

«Nok egon biar dau Eguzkijaren pekuan legez oetik urteteko?» (Mogel *PA* 62)

«Oneen artian zan ekanduba orduban mutiltxu asko imintia Irakasle baten pekuan alkarregaz azi zitezen» (Mogel *PA* 151)

«Pekua: Protección. *Berorren pekuan nago:* estoy entregado, o bajo de la protección de Umd.» (Mogel *PA* 169)

«Eskaratz aldia / Txakur baten pekora (al cuidado)» (Uriarte *Ip* 42).

• PENTZUAN, PENTZURA

Forma eta aldaera nagusiak: *pentzuan, pentzura* eta honeen mugagabeak: *pentzutan, pentzutara* dira ahoz entzuten diranak. Tradizio idatzian *pentzudan* (*pentzudaan*) itxura osoagoaren azpian be agiri da.

Zentzua: 'a merced de, a expensas de'.

Erabilera: Edutezko genitibodun izen, izenordain edo posesibo bategaz.

Idazkera: Bereiz idatziko da, edutezko genitibodun izenetik banandurik.

Adibideak:

Zeren edo noren pentzuan zagoz ba, beharrean hasteko?
Ez egon nire pentzuan, nik zeregin asko daukat eta.
Etxe guztia nire pentzura dago. Neuk egin ezik, inok ez dau zo - tzik albora mogitzen.
Etxeko behar guztiak inoren pentzura itxita feriara joan da.
Inoren pentzuan dagoana koitadu dago.
Batean baten pentzuan, bestean bestearen pentzuan, eta akabuan inok be ez eutsan ekarri aginduriko liburua.

Testuetarik:

> «Etzinian bart etzun nire pentzudaan, edo nik iratzartuko zendudazalako uste osuan?» (Mog *PA* 62), «ta geroko obiaguaren penzudaan egonaz, igaro erraza egiten jakee daruen biar gogor ta nekatsuba» (Mog *PA* 70), «eta (fiaduric) iminirik bizitzea olen batzuen pensuan botetan dau burua itsasoaren erdira» (Zabala *Bermeo* 143)

• **PREST**

Zetako prest? Edozetako prest, zeozetako prest, ezetako prest.
Parrandarako prest, oherako prest, eskolarako prest.
Etorteko prest. Ibilteko prest. Joateko prest. Jokatzeko prest. Hilteko prest.

• **PODEZUZ**

Idazkera: bereiz idatzirik.

Erabilera eta balioa: *-en* gen. edutezkoaz. Erdarazko 'a fuerza de' aurrekariaren antzekoa.

Adibidez:

Eginaren podezuz ikasten da guztia.
Ekinaren podezuz azkenean konforme geratu zan.
Berba eginaren podezuz ikasten da hizkuntza bat.

• **PURUZ**

Idazkera: bereiz idatzirik.

Erabilera eta balioa: *-en* gen. edutezkoaz.

Adibidez:

Inok lagundu barik, ekinaren puruz heldu gara gagozan lekura.
Guk beharraren puruz atera dogu bizimodua, ez inoren lepotik.
Mutila ezkondu gura ezik egon arren, hak ekinaren puruz atze - nean be berea egin dau.

• -TZEKA, -TEKA

Forma eta aldaerak: Euskera zaharrean *-tzaga* aldaera dogu nagusi, eta klasikoen artean *-tzaka*. Gaur egun Deba harroan dirau batez be bizirik, *-teka / -tzeka* itxurapean. Azken aldaera hau hobetsi leiteke bada gaurregunerako.

Erabilera: Gorago ikusi dogun *-ga / -ge* atzizki ezezkariaren aldaera da oinarrian. Atzizki hau, adizari dautsala erabili ezkero, *-tzeka / -teka* bihurtzen da.

Gaurregungo hiztun askorentzat lexikalizaturiko berbetan baino ez da bizi. Halan sagar-arboletan edo landaretan *eztituak* (mendua eginak) eta *eztitzakak* (mendau bakoak) izaten dira. Era berean, dotrina zaharretan, ume *bateatuak* eta *bateatzakak* bereizten dira. Andra-gizonezkoetan be *ezkonduak* eta *ezkontzakak* egon leitekez.

Deba harroko euskeran bizirik eta emonkor dirau ondino atzizki ezezkari honek. T. Etxebarriak jasoriko adibideok lekuko:

*Sagar hori hel**tzeka** dago.*
*Jostunak has**teka** eukan ondiok zure soinekua.*
*Afal**tzeka** zegozen zortziretan be.*
*Ikas**teka** eukan eguneroko aldixa.*
*Ikus**teka** dago ondiok zertan amaittuko dan ori.*

Testuetarik:

«394. Etxun aite afaltzaga / ta jagiaite zorbaga» (*RS* 394).

«Zer galbide edo peligrutan jarri oi dira deungaro ta arduratzaka bizi dirianak» (Mogel *DC* 43)

«Zeinbat denporan iraueben grazia galdutzaka?» (Mogel *DC* 24)

«baldin ustetzaka artua edo ogia faltau bada Domeka edo Astelen goxerako, ezta pekatu izango biar duin urun eralgitia» (Mogel *DC* 119)

• **ZAIN**

Zeren zain? Noren zain? Edonoren, edozeren, norbaiten, zerbaiten, inoren, ezeren... zain.

• **ZALE**

Andra zale, ardao zale, diru zale...
Haragi samur zalea, jantzi dotore zalea...
Gauza gozo zalea zara zu, edozegaz konformetako.
Ibili zalea, egon zalea, jan eta edan zalea...

Denbora onaren zalea, eguzki epelaren zalea, neska gazteen zalea, gauaz ibiltearen zalea...

Jaten zalea, edaten zalea, dantzan zalea, idazten zalea, irakurten zalea, mendian ibilten zalea...